

AURREZ AURREKO ETA TELEFONO BIDEZKO HARRERA, OHARRAK ETA MEZU ELEKTRONIKOAK

INFORMAZIO OROKORRA

EGUNAK Otsailak	Azaroak 6 - 8 - 13 - 15 - 20	IKASGELA/ TOKIA	IVAPeko kanpoko gelategia 10. gela Donostia-San Sebastián kalea, 1 Gasteiz
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	09:00 - 12:00
ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Urriak 13	ONIRITZI EPEA	Urriak 16 - 20
IKASLE KOPURUA	12 gehienez	NORENTZAT	EAEko herri-administrazioetako langileentzat
IRAKASLEA	IKA		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK

Ahozko nahiz idatzizko komunikaziorako konpetentzia hobetzea, herritarrari edo lankideei harrera egitean euskararen kalitatea bermatzeko hiru arlo hauetan: aurrez aurreko nahiz telefono bidezko jardunean, oharrak jasotzean eta mezu elektronikoa idaztean.

HELBURU ZEHATZAK

- Aurrez aurreko nahiz telefono bidezko ahazko jardunak hobetzeko edukiak eta hizkuntza-estrategiak lantzea: konbentziosko konplimentuak, solaserako enfatizazio-estrategiak, azalpenak argitzeko hizkuntza-baliabideak (joskera, lexikoa), egokitasuna eta zuzentasuna bermatzeko ohiko akatsen lanketa.
- Oharrak egoki eta zuzen jasotzeko gutxieneko eduki gramatikalak lantzea: izendegi ofiziala, datak, orduak, helbideak, laburtzapenak eta zenbakien nahiz kopuruen idazkera.
- Mezu elektronikoa testu-genero berezitua den heinean, idazteko ezaugarriak lantzea, betiere testuinguruko elementuak kontuan hartuta: egokitasuna (erregistroa, tonua), testu-egitura, koherentzia eta kohesioa (testu-antolatzaileak, lexikoa), argitasuna (joskera-baliabideak) eta zuzentasuna.
- Jardunok arrakastaz egin daitezten, Administrazioaren baliabide behinenak erabiltzen trebatzea, zalantzak argitzeko tresnak eskuratzeko.

GAITASUNAK

- Gaitasun sozio-pragmatikoa: komunikazio-egoera bakoitzean egokiena den hizkuntza-aldaera aukeratu.
- Gaitasun diskurtsiboa: ahazko nahiz idatzizko testua sortzeko oinarriko baldintzak ezagutu.
- Gaitasun linguistikoa: gramatika arauemailearen ezagutza praktikoa.
- Gaitasun estrategikoa: komunikazioaren testuinguruaren arabera, erabaki egokiak hartzen jakitea.



AURREZ AURREKO ETA TELEFONO BIDEZKO HARRERA, OHARRAK ETA MEZU ELEKTRONIKOAK

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA

Ikastaroa aurrez aurrekoa izango da. Komunikazioa izango du ardatz, eta ikasleen benetako lan-jardunetatik abiatuko dira atazak. Teoria eta praktika uztartuko dira: azalpen teorikoen bidez, baliabideak eta estrategiak eskainiko dira zailtasunei aurre egiteko. Testuen eredu onak aztertuko dira, eta adibide kaskarrak arazoa/konponbidea ildoari jarraituz zuzenduko dira. Komunikazio-egoera horietan egiten diren ohiko akatsetan arreta jarri eta ariketa berezituen bidez zuzenduko dira. Ikasleen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa da, simulazioen bidez jarriko baitira praktikan ezagutzak. Hiru arlo landuko direnez, hiru ataletan banatuko da ikastaroa eta hirurek izango dute lotura.

PROGRAMA

Aurrez aurreko nahiz telefono bidezko solasaldien ezaugarriak landuko dira testu-genero gisa, eta ikasleen laneko egoeretara egokituko dira atazak. Aurrez aurreko nahiz telefono bidezko solasaldietako informazioa oharretan egoki eta zuzen idazteko eduki gramatikalak landuko dira. Askotariko mezu elektronikoak idazteko ezaugarri behinenak landuko dira: egokitasuna, testu-egitura, koherentzia, kohesioa, argitasuna eta zuzentasuna.

EBALUAZIOA

Adierazle zehatzak ezarriko dira fitxa batean, helburuen betetze-maila neurtzeko. Hiru ebaluzio mota hartuko dira kontuan:

- Hasierakoa: ikastaroaren hasieran diagnosia egingo da, ikasleen abiapuntua ezagutzeko.
- Jarraitua: saioetako ahozko nahiz idatzizko ekoizpenak, horiek sortzeko prozesua eta ikasleen jarrera hartuko dira kontuan.
- Amaierakoa: azken proban, ikasleek hiru arloetan landutakoa erabiliko dute egoera erreal batean.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.
Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

PREZIOA

152,25 €
AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2022ko uztailaren 8koa, 132. zk.

